

Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 13a

626. zenbakia

KULTURA/ Zabalotegiko aretoa berritzeari ekin nahi dio Udalak; zine emanaldiak eskatuz 2.500 sinadura inguru jaso ditu herritar talde batek

Zabalotegiko aretoan zine emanaldiak antolatzeako aukera aztertzen dihardute

EDU MENDIBIL

Udaleko arduradunek Zabalotegiko aretoan zine emanaldiak antolatzeako aukera aztertzen dihardute. Hain zuzen ere, Zabalotegiko dorretzeko aretoa erabilpen askotarako (zinea tartean) aretoa bihurtzea da Udalak eskuartean duen proiektuetako bat.

Udaleko iturriek BERRIGARARI adierazitakoaren arabera, kultur aretoen gestioan aditutako enpresa batekin harremanetan jarri dira, Zabalotegin zine emanaldiak antolatzeako aukera aztertzeke.

Udalak Zabalotegiko aretoa berritzeko asmoa dauka aurten eta orain, lanak adjudikatzeko prozesua martxan jarri aurretik, bertan zine emanaldiak antolatzetik egongo den aztertzen dabil, hasierako proiektuari beharrezko aldaketak egiteko.

Badirudi, Novedades aretoa berriro zabaltzeko aukera baztertzen hasi direla: lokalak ez ditu baldintza egokiak betetzen eta aretoko arduradunek ere ez dute interes askorik azaldu.

Hala ere, Udalak ez du baztertu Zabalotegiko aretoa berri-arte arazoari behin-behineko soluzioa ematea. Momentuz, uda osoan aire libreko zine emanaldiak antolatuko lirateke, ez abuztuan bakarrik, orain arte izan den bezala.

ZINEA ESKATZEN SINADURA UGARI

Bien bitartean, herritar talde batek sinadura bilketari ekin dio azken asteotan, Udalarari "gabezi hau ekiditeko beharrezko gestioei ekiteko" eskatuz. Bultzatzaileek adierazi digutenez, dagoneko 2.500 sinadura jaso dituzte. Pazkoen ostean entregatuko dituzte sinadurak udaletxean eta gaiaren inguruko beste bilera bat egingo dute hilaren 26an, Zuhaitz tabernan, 20:30ean.

Zabalotegi berri-arte bitartean zinearen arazoari behin-behineko soluzioa topatu nahi diote



Zabalotegiko aretoa aurten berritzeko asmoa dauka Udalak.

BERRIGARA



Realekoak Deporren inaugurazioan

Realeko Alberto Lopez eta Jeremie Brechet jokalariek eta Jose Luis Astiazaran presidentea izan ziren eguaztenean Bergaran, Deportivo tabernaren inaugurazioan. BKEko presidente izandako hainbat lagun eta Juan Luis Larrea Gipuzkoako Federazio burua ere han izan ziren, besteak beste. Realeko jokalariek ikusmin handia piztu zuten eta neska-mutiko mordo hurbildu ziren beraiengana, sinadura eske. Astiazaranek plaka oroigarri bat eman zion Iñaki San Jose BKEko presidenteari.

LABUR

Sokamuturreko arauak eta barraken prezioa

Domekatik martitzenera bitartean sokamuturra izango da Pazkoetan. Udalak kaleratutako bandoaren arabera, 14 urtetik beherakoek ezin izango dute parte hartu. Era berean, alkohola edo bestelako drogen sintomak dituztenei ere parte hartzea debekatu ahal izango zaie.

Barraken prezioari dagokionez, iazko prezioa mantenduko da: 1,50 euro txartel bakoitzeko. Pazkoetako martitzenera prezio berezia izango da: euro bat bi txartelen truke. Barrakak gaur, egubakoitza, irekiko dituzte, 20:00etan.

JAIK/ Ekitaldi guztiak Bideberriko txosna gunean izango dira, zapatuan preso eta errefuxiatuen alde Muniben izango den bazkaria izan ezik

Herri Mugimenduan biltzen diren kolektiboek hainbat ekitaldi antolatu dituzte jaietarako

E.M.

Herri Mugimenduan biltzen diren kolektiboek Pazkoetarako antolatu dituzten ekitaldien berri eman zuten martitzenean, gaztetxean. Txosna gunean izango dira ekitaldi gehienak.

Besteak beste, AEK, EHE, Bai Euskal Herriari, Txapa Irratia, Batasuna, Presoen Lagunak, Gazte Asanblada, Ikasle Abertzaleak, Segi eta Bergarako Gazteak biltzen dira Herri Mugimendua plataforman. Pazkoetarako antolatu dituzten ekitaldien berri eman zuten martitzenean, prentsa aurrean. Iñigo Arregik azpimarratu zuenez, "azken urteotan jai giroak behera egin du nabarmen eta herritarrek, lagunak eta koa-drilen parte hartzea bultzatzeko ekitaldiak antolatzen saiatu gara. Bestalde, jaiekin gozatzeaz aparte, ezin ditugu ahaztu gure herriak bizi duen arazo eta gatazkak eta hori dela eta antolatuta-ko ekitaldietan parte hartzeko deia egiten diegu herritarrei".

Amaia Osa programaren berri eman zuen. Besteak beste, egunero kontzertuak izango dira Bideberriko txosna gunean, gauez. Era berean, gaur, egubakoitza, Ailaket elkartearen eskutik droga analisiak egingo dira gaztetxean, 23:00etan eta bihar, zaturako, txikiteo herrikoia iragarrita dago, 12:00etan. Ondoren, 13:30ean, preso eta errefuxiatuen aldeko bazkaria izango da Muniben. Arratsaldean, manifestazioa izango da, 20:00etan.

MAHOIZKO BLUSAK

Domekan, *AHT Gelditu* lelopean, bizikleta martxa izango da eta astelehenean, hilaren 16an, kutsaduraren aurkako baltsa jaitsiera izango da 18:00etan.


Azkenik, Pazkoetako martitzenean, txorizo egosia banatuko da txosnetan 08:00etan eta 10:00etan dultzaina jotzaileekin kalejira egingo da. Jaietari bukera emateko sagardoa dastatzeko aukera izango da Bideberriin, 21:00ak aldera. Jaietan mahoizko blusak jarriko dituzte salgai Herri Mugimenduko kideek.



Iñigo Arregi eta Amaia Osa Herri Mugimenduko beste kide batzuekin, martitzenean emandako prentsaurrekoan.

Jardunen logotipo lehiaketa

Jardun elkartearen sorreraren 15. urteurrena betetzen da aurten. Hori dela eta, logotipo lehiaketa deitu zuen Jardunek eta argazkian azaltzen diren Libe San Migel eta Iñaki Laguardia izan dira irabazleak. 12 urtetik beherako arteen lehen saria irabazi du Libek: 45 euroko erosketa bonoa Etxeparen; Iñakik, berriz, 60 euroko saria eskuratu du, 12 urtetik gorakoendako sari nagusia. Argazkian saritutakoak, euren lanekin.



LABUR

Gaixo psikikoen familiarren Agifes elkarteak bazkaria egingo dute Eibarren hilaren 21ean

Agifes elkartearen sentsibilizazio kanpainari bukaera emateko, bazkaria izango da Eibarren, Arraten, maiatzaren 21ean. Eibarrera joateko autobusa 12:30ean aterako da Bergaratik, autobus geltokitik. Izenematea eta argibideak 943 47 43 37 telefonoan.

Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga ordaintzeko borondatezko epea zabalik

Udalak aditzera eman duenez, Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga ordaintzeko borondatezko epea maiatzaren 15etik uztaillaren 1era bitartean izango da zabalik. Borondatezko epea amaitu ondoren, errekararekin kobratuko da.

Erreziboak helbideratu gabe dituzten zergadunek etxean jasoko dute ordainketa egiteko beharko duten agiria. Agiri horrekin udal bulegoetan edota edozein banketxetan egin daiteke ordainketa. Agiri hori maiatzaren 31 baino lehen jasotzen ez dutenek Kontuhartzaitzatik pasa daitezke. Argibideak: 943 77 91 64.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

BERGARA
Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

HEZKUNTZA/ Gizarte Zientziak, Osasuna eta Psikopedagogiako ikastaroak izango dira

Udako ikastaroak Bergarako UNED zentroan, ekainaren 14tik aurrera

E.M.

Bergarako UNED ikastetxeak IV. Udako Ikastaroak aurkeztu zituen atzo, eguna, Donostiako Kutxa-ko Ekitaldia aretoan.

Han izan ziren Juanjo Alvarez Bergarako UNEDeko zuzendaria; Vicente Huiji idazkaria; Manolo Cainzos Udako Ikastaroen arduraduna eta Lourdes Arana eta Iñaki Almandoz Kutxako ordezkariak.

Etengabeko prestakuntzan, unibertsitateko hedapenean eta egungo arazoan hausnarketan laguntzea da Udako Ikastaroen helburu nagusia. Aurtengoa Udako Ikastaroen V. ekitaldia

izango da Bergaran. Aurreko urteotan jasotako erantzunarekin pozik azaldu dira UNEDeko arduradunak.

ESKAINZA ZABALA

Gizarte Zientziak, Osasuna eta Psikopedagogia arloetako ikas-

taroak egongo dira eta, besteak beste, *25 años del estatuto de los trabajadores; Manejo del estres; Dementziak: tratamendu eta teknika terapeutikoak; Psicología y crecimiento personal; Bullying. Acoso escolar; La construcción de los vínculos afectivos en el contexto escolar* edota *Eskolako egunkari digitala: maketazioa eta edizioa* izenburuko ikastaroak iragarri dituzte.

Edozein argibidetarako 943 76 90 33 telefonora jo dezakezue. Era berean, ikastaroen matrikula egiteko edo informazioa jasotzeko <http://www.uned.es/ca-bergara> helbidera jo dezakete interesatuek.

**Aurtengoa Udako
Ikastaroen V.
ekitaldia izango da
Bergarako UNED
ikastetxean**



Ikastaroek erantzun ona jasotzen dute aurreko urteotan.

E.M.



Helduen Eskolako ikasleek eta irakasleek irteera egin zuten

Bergarako Helduen Eskolako ikasle eta irakasle talde batek irteera egin zuen apirilaren azkenean. Tolosa eta Zerain bisitatzearaz gain, *El Diario Vasco* egunkariko erredakzioa ikustera joan ziren Donostiara, Ibaeta auzora. Egunkaria nola egiten den azaldu zieten eta Helduen Eskolakoek interes handiarekin jarraitu zituzten azalpenak. Helduen Eskolakoak ikasturtearen azken txanpan dira. Argazkian, HHI-EPA Bergarako ikasleak Donostian ateratako argazkian.

LABUR

San Esteban Elkoartiko jaia ospatuko da domekan, aspaldiko ohiturari eutsiz

Pazkoetako domekan, maiatzaren 15ean, San Esteban Elkoartiko jaia ospatuko da Elorregi auzoan.

Ohikoa denez, 11:45ean etxafuego jaurtiketa egingo da eta ondoren, 12:00etan, meza izango da San Esteban Elkoartean. Mezaren ostean salda eta jatekoak eta umeendako jokoak izango dira.

Odol ateratzea egingo dute maiatzaren 25ean Seminarioko lokalean, ohiko ordutegian

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak aditzera eman duenez, hurrengo odol ateratzea maiatzaren 25ean egingo dute Seminarioko lokalean, 18:30etik aurrera.

Ekainean, berriz, bi odol ateratze egingo dituzte, hilaren 8an eta 22an hain zuzen ere. Odol Emaileen Elkarteak dei egiten die emailleei odol ateratzeotan parte hartzeko.

1968an jaiotako afaria maiatzaren 28an eta 1935eko bazkaria ekainaren 12an

1968. urtean jaiotako bergararren afaria izango da maiatzaren 28an. Interesatuek 10 euro ordaindu behar dituzte Euskadiko Kutxan irekitako kontuan.

Bestalde, 1935ean jaiotako bazkaria egingo dute ekainaren 12an Zumelaga jatetxean, 14:30ean. Izenematea (12 euro) ekainaren 8ra arte izango da zabalik Euskadiko Kutxan.

IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32



GAZTELU
BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

FUTBOLA/ Geratzen diren hiru partiduetan ia miraria behar du Bergarak mailari eusteko

Zarautzen aurka azken aukera izango du Bergarak

EDU MENDIBIL

Mailari eusteko aukerak agortzen ari zaizkio Bergarako futbol taldeari. Liga amaitzeko hiru partiduren faltan, egoera larrian dira Fernando Oregiren mutilak. Bihar, zapatua, Zarautzen bisita izango dute Agorrosinén, 16:30ean, baja askorekin gainera.

Zestoaren aurkako partidua ondorio latzak utzi ditu: Oskar Maiztegi, Josu Zubikarai eta Ander Sesma kanporatu zituen epaileak eta beraz ezin izango dute bihar jokatu. Hori gutxi balitz, Oier Loiola, Jon Alzola, Mikel Ormaetxea eta Ibai Zankadaren bajak ere izango ditu Oregik biharko partidurako.

Fernando Oregi Bergarako entrenatzailea oso haserre dago domekan Zestoan (1-1) gertatutakoarekin: "Gure errua izan zen hiru puntuak ez eskuratzea, aukera mordo bat galdu genituen-eta. Hala ere epailea negargarri aritu zen eta sei segundo baino ez zuen partidua luzatu". Epaileak



Ez badu bihar irabazten, Bergarak agur esango dio preferente mailari.

mahoneroen protestak jaso zituen aktan eta Zubikarai eta Maiztegi nekez jokatu ahal izango dute azken hiru partiduetan.

Gauzak oso zail egon arren, biharko partidua irabazteko konfiantza azaldu du Oregik: "Badaikit panorama beltza daukagula, baina daukagun guztia emango dugu bihar, ez dago besterik".

BESTE BI PARTIDU ASTE BUKAERAN

Bestalde, beste bi futbol partidua jokatu dira aste bukaeran Ipintzako futbol zelaietan: zapatuan, lehen gazte mailako taldeak Antoniano hartuko du, 18:30ean; domekan, berriz, ohorezko kadete mailan, Bergara eta Beasain taldeak izango dira aurrez aurre, 18:00etan.

Kadete mailako nesken futbol taldea txapeldun Gasteizko txapelketan

E.M.

Bergara KEko kadete mailako nesken futbol taldeak Gasteizko San Prudentzio txapelketa irabazi zuen aste bukaeran. Bederatzi talde aritu ziren lehian eta Bergara eta Numantzia iritsi ziren finalera.

Finala husna amaitu ondoren, Mikel Fernandez Popek zuzendutako taldea penalti jaurtiketetan nagusitu zen. Iraitz Salegi atezain bergararraren lana funtsezkoa izan zen, hiru jaurtiketa geratu baitzituen. Langraitzen jokatu zen Gasteizko Udalak eta Arabako Diputazioak antolatutako txapelketa.



Kadete mailako neskek Numantziari irabazi zioten finalean, penalti jaurtiketetan.

LABUR

Bergara Hiria Txapelketako finalak astelehenean, Udal Pilotalekuan


Astelehenean, maiatzaren 16an, Bergara Hiria Txapelketako finalak jokatu dira Udal Pilotalekuan, 19:30ean: 22 urtetik azpitikoen mailan, Renobalesek eta Iraolak Apezetxea eta Diez de Ultzurrunen aurka jokatu dute. Jarraian, nagusien mailan, Diazek eta Okiñenak Berasaluze eta Apraizen aurka neurtuko dituzte indarrak. Bergara Hiriko finalen aurretik Gipuzkoa eta Bizkaiko neska pilotarien arteko norgehiagoka izango da, 19:00etan.

Albizurirekin batera, Xabier Lijo zortzigarren tokian sailkatu zen Baigorriko Euskal Trailen

Xabier Lijo bergararrak zortzigarren postua lortu zuen joan den barikuan eta zapatuan Baigorri jokatuako Euskal Trail korrika proban. Bikoteka, partaideek 80 kilometro egin behar izan zituzten bi egunetan. Jose Luis Albizuri azpeitiarrarekin batera, zortzigarren postuan sailkatu zen Lijo. Albizurik eta Lijok 9 ordu eta 40 minutuko denbora markatu zuten. 170 bikote inguru izan ziren lehian Baigorriko proban.

Emakumeei zuzendutako autodefentsa ikastaroa maiatzaren 27an eta 28an

Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatuta, emakumeei zuzendutako autodefentsa ikastaroa izango da maiatzaren 27an eta 28an. Irakaslea Maitena Monroy izango da. Plazak mugatuak dira. Izena emateko epea maiatzaren 25era arte izango da zabalik. Argibideak Kirol Zerbitzuan, 943 77 91 67 telefono zenbakian.



Hernandez garaile teniseko finalean

Abel Hernandez elgoibartarra (ezkerrean) izan da Debagoieneko Tenis Txapelketako irabazlea. Oñatiko Javier Olasori nagusitu zitzaion finalean, zapatuan Labegarrietan, 7-5, 5-7 eta 6-2. Juan Luis Etxaniz bergararrak hirugarren postua eskuratu zuen, Jose Caballero arrasatearrari irabazita. 25 jokalaririk izan dira lehian Debagoieneko Tenis Txapelketan.

GABILONDO
INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak, baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono. 761051
R. S. I. 209374 - 55
BERGARA



**JAUJA
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

ARGAZKILARITZA/ Benito Cantero, Juan Antonio Untzurruntzaga eta Jorge Murgiondo bergararrak ere sarituak

Gurrutxaga eta Ferreras, Bergara Hiriko irabazleak

EDU MENDIBIL

Berangoko Javier P. Fernandez Ferreras (zuri-beltzeko kategorian) eta Agustin Gurrutxaga bergararra (koloretan) izan dira Bergara Hiria argazki lehiaketako irabazleak. Lan onenen erakusketa kultura-etxean dago ikusgai, maiatzaren 22ra arte.

Agustin Gurrutxagak *Decadencia industrial* izenburuko lanari esker lortu du lehen saria. Benito Canterok eta Juan Antonio Untzurruntzagak, berriz, bina sari lortu dituzte: Canterok bigarrena zuri-beltzean (*Zaldia* lanarekin) eta hirugarrena koloretan (*Urbia*); Untzurruntzaga, berriz, bigarrena izan da koloretan (*Tres desguazando*) eta zuri-beltzean herriko onenaren saria jaso du, *Casero y caserio* lanagatik.

Jorge Murgiondok herriko onenaren saria irabazi du, *Soroa* II izenburuko lanarekin eta hirugarren saria zuri-beltzean Francisco Fernandez Iturrioz donostiarrarentzat izan da (*Salto en cross de Lasarte*).

HAINBAT BERGARAR ERAKUSKETAN

Aurtengoa Bergara Hiria Argazki Lehiaketaren 21. ekitaldia da eta 218 argazki jaso dituzte, 133 koloretan eta 85 zuri-beltzean hain justu. Esan bezala, lan one-


nen erakusketa kultura-etxean izango da ikusgai, maiatzaren 22ra arte. 16 argazki aukeratu dituzte erakusketarako. Tartean, Josean Arenaza, Juan Jose Lopez, Josu Unamuno eta Mikel Castelo bergararren argazkiak ere egongo dira.

Sari banaketa ekitaldia maiatzaren 20an egingo dute kultura-etxean, 20:00etan.

ARGAZKILARIAK BOLADA ONEAN

Herriko argazkilariak beste hainbat sari lortu dituzte azken asteotan: Untzurruntzagak lehen saria jaso zuen Estatu mailako Gasteizko San Prudencio lehiaketan; Gurrutxaga bigarrena izan zen Tolosako Mendiko Argazkien Lehiaketan eta Cantero hirugarrena izan zen Tolosa eta Beasaingo lehiaketetan eta, era berean, akzesita lortu zuen Argizaiola lehiaketan.

*Juan Antonio
Untzurruntzagak
Gasteizko San
Prudencio lehiaketa
irabazi du*



Javier P. Fernandez Ferrerasen *Simba*, lehen saria koloretan.

Pazkoen ostean, hiru emanaldi egingo ditu Bandak herritik kanpo

E.M.

Udal Musika Bandak emanaldi bakarria egingo du aurten Pazkoetan. Domekan izango da kontzertua, Espoloiaren, 12:30ean. Honako piezak joko dituzte: *Cantate un pasodoble* (Cano), *La belle Hélène* (Offenbach), *Euskal Herria kantuz* (Gonzalez Chirlaque), *Forrest Gump* (Silvestri) eta *Jericho* (Appermont).

HIRU KONZERTU KANPOAN

Jaien ondoren, Bergararik kanpo hiru kontzertu emango ditu Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzendutako Bandak.

Lehenbizikoa maiatzaren 21ean izango da, Zallan. Hango Auditorioa inauguratu dute aurten eta bertan ospatuko den Banden Jaialdian parte hartzeko gonbidatu dituzte bergararrak. Kontzertua 20:00etan izango da.



BERRIGARA

Udal Musika Bandak Espoloiaren joko du domekan, 12:30ean.

Handik astebetetera, maiatzaren 28an, Donostiako Altza auzoan joko dute, 20:00etan, eta

hurrengo egunean, hilaren 29an, Usurbilen, 12:30ean. Gogoratu 2007an Banda sortu zeneko 175. urteurrena beteko dela.

LABUR

Gaztetxoei zuzendutako pintura eta marrazketa ikastaroa udan, Bearten eskutik

Beart elkarteak 6-15 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako pintura eta marrazketa ikastaroa iragarri du udarako. Ikastaroa uztailaren 4tik 29ra egingo da, 10:15etik 12:15era. Izenematea: 653 71 53 82 (Mayra), Oihana (665 70 31 75) edo bestela Maite (635 71 32 69).

Azkaiter Pelox bakarlariak hiru kontzertu emango ditu datozen egunotan

Azkaiter Pelox bakarlari bergararrak hiru kontzertu emango ditu maiatzaren: bihar, zapatua, Eskoriatzako gaztetxean izango da kontzertua, 22:30ean; martitzenean txosnetan izango da Bergaran; eta, azkenik, hilaren 28an Bergarako gaztetxean joko du bakarlariak.

Musika Eskolan hurrengo ikasturterako aurre matrikula egiteko epea zabalik dago

Bergarako Musika Eskolak aditzera eman duenez, aurre matrikula egiteko epea zabalik dago dagoeneko, 5 urtetik aurrerako ikasleendako. Interesatuak Musika Eskolara edo 943 76 57 80 telefono zenbakira jo dezakete argibide eske.

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialak

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

Mujika
gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53



ARRI
Industri hornidura
Latigilloak

Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta
era guztietako kargak

ZAHARRAKBERRI

Osteoporosiaren gaineko hitzaldia maiatzaren 23an San Joxepen

IRATI AGIRREAZALDEGI

Adineko jendearekin zerkusia duten egunerokotasunezko gaiak lantzen dituzte noizean behin San Joxepekoek. Horretarako, Kutxa-ko gizarte ekintza sailaren bidez hitzaldiak egiten dituzte.

Oraingo honetan landuko duten gaia osteoporosia da. Horretarako hitzaldia izango da maiatzaren 23an, 17:00etan, erretiratu-entuen egoitzan.

Osteoporosia, arriskuak eta zainketak izenburupean egingo da hitzaldi hau. Osteoporosia zer den azaltzeaz gain, gaitza zerk eragiten duen, nola aurrea har diezaiokogun... jakinaraziko du aditu batek. Azken batean gaitz honi buruz pixka bat gehiago jakin ahal izatea da jardunaldi honen helburua.

ZER DA ETA NOLA AURRE EGIN

Osteoporosia gaixotasun metabolikorik ohikoena da mendebaldeko gizarteetan. Gaitz hau agertzen da hezurretan desoreka dagoenean erresortzio eta formazio prozesuen artean. Ondorioz, hezurren masa galtzen da. Hezur-masa galtzeak ez du esan nahi gorputzaren euste-sistema ahultzen denik bakarrik; mineralen galera ere ekartzen du.

Gaur egun, menopausia osteko emakumeen % 50 eta 75 urtetik gorako pertsonen erdia osteoporosiak jota dago.



BERRIGARA

Gaur egun, 75 urtetik gorako pertsonen erdia osteoporosiak jota dago.

*Mendebaldeko
gizarteetan
gaixotasun
metabolikorik
ohikoena da
osteoporosia*

Gaur egun badira hainbat neurri erraz, hezurren osasuna mantendu eta osteoporosia ebitatzen lagun dezaketenak. Kaltzioan aberatsak diren jatekoak eta edariak hartzea eta ariketa fisikoa erregulariki egitea dira prebentzioaren giltza. Botikak ere badaude osteoporosiaren kontra. Kaltzitomina esaterako, erabilgarria da hezur-masaren galerari aurre egiteko.

LABUR

Maiatzeko bigarren bingo saioa hilaren 19an izango da San Joxepe elkartearen


Hilabetero bi bingo saio izaten dira San Joxepe elkartearen. Maiatzeko lehen jardunaldia hilaren 5ean izan zen eta bigarrena maiatzaren 19an izango da. Saioa 17:30ean hasiko da eta ordubetez jardungo dute erretiratuak bingo jokoa.

Omenaldia egingo diete maiatzaren 22an aurten 87 urte beteko dituzten bergararrei

Aurten 87 urte beteko dituzten bergararrek omenaldia jasoko dute datorren maiatzaren 22an. 10:30ean meza izango da euren omenen Santa Marinako elizan. Ondoren San Joxepera joan eta ekitaldia egingo da. Omendutako 37 bergararrendako oroigarriak izango dira. Hauek banatu ostean, aurrekoa dantzatuko dute eta agintarien hitzaldirik ere ez da faltako. Luntxa izango dute gero eta ekitaldia amaitzeko abesbatzak kantatuko du.

Balmasedara irteera antolatu dute San Joxepe elkarteak maiatzaren 28rako

Bizkaian, Enkarterrietan, dago Balmaseda, eta bertara irteera antolatu dute San Joxepe elkarteak. Balmasedako hainbat txoko ezagutzeko bisita gidatua egingo dute. Besteak beste, zubi zaharra, udaltxea, San Severino eliza, Horcasitas jauregia, La Encartada fabrika zaharra eta Santa Klara komentua ikusiko dituzte. Irteeran parte hartu nahi dutenek maiatzaren 23a baino lehen eman beharko dute izena idazkaritzan.



Erretiratuendako merienda eta dantzaldia San Joxepen udaberri jaia ospatzeko

udaberria dela aitzaki, San Joxepekoek jaia antolatu dute. Maiatzaren 31n merienda egingo dute elkartearen bertan eta ondoren dantzaldia izango da Iñaki Quintanillarekin. Jaia 17:00etan hasiko da eta dantza eta jai giroan egoteko aukerarik ez da faltako bertan.

**ZUHAIZTI
taberna**

Astelehenetik ostiralera eguneko menuak Zuhaitzintin.

Eguneko menuak!

Orduetgia: 12:30etik 15:00etara.

Espaloia 6 Bergara Tel.: 943 76 59 22

**HIRU BIDE
JATETXEA-BENTIA**

Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45

**MIZPILDI
OKINDEGIA**

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

**NANARRI
LAN BERTIKALAK**

- PODAK, TEILATUAK, TXIMINIAK, KANALIOAK, BAJANTEAK, FATXADAK ETA PATIOAK.
- ANDAMIORIK GABEKO LANAK.

Tel.: 676 952 966
680 641 401

MINGAINARITIRAKA



Mari Karmen
Sesma

TXUKUN DENDAKOA

Orain dela 22 urte zabaldu zuen Mari Karmenek Txukun denda. Boutique gastronomikoa da Txukun, janari bereziak erosteko toki aproposa. Afari baterako menu berezi-berezia ere eman digu Mari Karmenek; ez dago, beraz, aitzakiarik.

Gaur gauean koadrilako lagunak etorriko dira etxera afaltzera. Zer prestatuko diet?

Hasteko, foie freskoa plantxan tipula melatuarekin, mahats saltsarekin eta sagar purearekin; ondoren, izoki n ketua, onddo nahaskia, eta arraina labean eginda. Postrean, berriz, zerbait gozoa.

Mokofina zara?

Bai, oso moko finekoa naiz; deformazio profesionala da hori.

Zure etxeko hozkailuan zer ez da sekula falta?

Entsaladarako tomatea, jogurtak eta gazta.

Eta zer ez dugu sekula topatuko?

Txuletoi handi bat.

Gustoko edari bat?

Ardo beltz ona.

Gozoa edo gazia?

Gozoa; izugarri gozozalea naiz.

Arraina edo haragia?

Arraina.

Zure lanean, zer da gehien gustatzen zaizuna?

Jendearekin egotea eta eurekin berba egitea, haiei entzutea.

Eta gutxien?

Oso lan esklabua da, ordutegiagatik, batez ere.

Denbora librean, zer egitea gustatzen zaizu?

Paseatzea, mendian ibiltzea.

Nora joaten zara paseatzera?

Hemen, Bergaran, Surra eta San Martzial aldera joatea gustatzen zait; asteburutan, berriz, askotan joaten gara Garaiora edo Ulibarrira. Uda partean, kostaldean ere egiten ditugu paseoak, mendian, itsasertzetik.

Zer falta du Bergarak?

Azkenaldian oso motel dago herria, giroa falta du.

Eta Bergarako gauza onena?

Bertako jendea.

Amets bat?

Bakea lortzea eta lasaitasuna; egutegiaren menpe bizi gara, beti presaka, beti hurrengo jaiegunaren zain.

AINZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA / Jaione Isazelaia

NORUEGA / 2004ko abuztuan

Argia, ura eta natura. Hiru berba honek laburtuko lukete ondoen bertan ikus daitekeena.

Hogeita bi egun egin genituen ibiltari, eta hala ere, erdia ere ez genuen ikusi. 4500 kilometro autokarabanan egin ondoren, iritsi ginen Andenesera. Herri hau Vesteralen Irlen iparraldean dago, Zirkulo Polar Artikoan; handik baleak harapatzen ibiltzen zen barku bat irteten da katxaloteak ikustera. Ezusteko galanta hartu genuen jakin genuenean bertan gidari lanak egiten gure herriko mutila zegoela. Azalpenak ingelesez, italieraz, norvegiarrez eta Arrasateko euskararen entzuteko aukera izan genuen, bitxia izan zen, benetan!

Vesteralen eta Lofoten irlek ezaugarri bereziak dituzte: latitudea, korronte beroa, kontinentetik hurbil...

Natura ikaragarria da irla hauetan: izugarrizko menditzarrak, elur eta guzti, itsasoren ertz-ertzean; Urbian bezalako zelai, mendi eta erreka-txoak, are zuri eta leuna duten hondartzekin elkartzen dira. Ardiak ikusi genituen hondartza hauetan. Arkaitz artean, berriz, mila modutako lore eta landareak, hemengoen antzekoak, baina, txikiagoak. Animaliak ere nonahi: adarbalak, oreinak, izokinak fiordoetan saltoka,



“Natura ikaragarria da Vesteralen eta Lofoten irletan: izugarrizko mendiak itsasoaren ertzean”

“Paisaiak, ametsetakoak; argia, amaigabea; hamaikak aldera sartzen da eguzkia”

fokak... Paisaiak, ametsetakoak. Argia, amaigabea; gaueko hamaikak aldera sartzen zen eguzkia eta gorputzak ez zuen nekea nabaritzen.

Irletatik kontinentera itzuli ginen, han iparretik hegorako norabidea hartu eta parke nazionaletan ibili ginen: glaziarak, fiordoak, zurrumbilo erraldoiak, ur jauziak, sekulako desnibelak portuak igotzeko, mendi altuak, landare bereziak... Ezinbestean patxadaz ibili beharreko tokiak, abiadura muga orduko 90 km da, baina oso toki gutxitan joan daiteke abiadura horretan.

Artea ere ikus daiteke, vikingoen barkuak, mila urte inguruko egurrezko elizatxoak, stavkirkenak... Oslon Munchen “Karrasia” ikusteko aukera izan genuen, eta hurrengo egunean lapurtu zuten bertan, dagoeneko erre omen dute...

Zailtasunak zailtasun, horrenbeste mila kilometro, horren garestia izatea, etengabe barkuak hartzeko beharra (hamabost ferry hartu geni-

tuen), abiadura motela... egin dugun bidaiarik ederrera izan zen. Errepikatze gogoarekin etorri ginen; joatekotan, berriz ere ipar bakarti, zabal eta argitsura joango ginatete.

AINZANE IRIZAR



Bleikeko hondartza, Veteralen irletan.

ARANE
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

Dixula

BOKATAK
DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...



Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

**BEHEKO
TABERNA**

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Zelan deitzen zen
San Pedro kalea XIX.
mendera arte:
Arrabal kalea,
Kale Nagusia ala
Bidekurutzeta kalea?



Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

AITOR ALDZABALA lendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Aitor!

Galderaren erantzun zuzena: **Ezkerrekoa Izagirre (Moiarena); eskumakoa, Ariznoa.**



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA:

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO** BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Vernel leungarria
2,5 litro

2,29 €

381 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ERRETRATUZAHARRA

OÑATI
**Neskatilen
bigarren
jaunartzea**

Argazki honetako neskatilek 10-11 urte izango zituzten eta bigarren jaunartzea egin zuteneko da, 1950eko maiatzekoa.

Lehenengo jaunartzea 6-7 urtekin egiten zuten lehen, astegun baten. Kolorezko soinekoekin joaten ziren neskatilak; bigarren jaunartzea, berriz, soineko zuriekin egiten zuten.

Goian ezkerretik eskumara: On Leonardo Zabaleta apaiza, Ines Lizarralde, Julia Urmeneta, M^a Anjeles Murua, Milagros Elortza, M^a Antonia Murua, Eloisa Markuleta, Mertxe Korta, Felisa Maiztegi, Milagros Urtzelai, M^a Karmen Galdos, M^a Anjeles Biain, M^a Nieves Urtzelai, Bernarda Arribabalaga, M^a Tere Anduaga eta Gloria Anduaga.



Bigarren ilaran: Pili Mugar-tza, Tere Ezpeleta, M^a Luisa Altzelai, Beatriz Ezpeleta, Anparo Billar, M^a Nieves Albizu, M^a Paz Irizar, M^a Pilar Dorronsoro, Pilar Arregi, Julia Arabaolaza, Karmen Galdos, M^a Antonia Urtzelai, Benita Lazkanoiturburu eta On Migel Diez apaiza.

Hirugarren ilaran: M^a Asun Azpeitia, Arantxa Aran-

buru, Isabel Perez, Arantxa Erle, M^a Pilar Beitia, Eulali Kortabarría, On Migel Etxabeguren, Pilar Inurritegi, Pilar Ugarte, Maribi Umerez, M^a Paz Umerez, Axun Korkostegi, Jesusa Urtaza eta Pilar Kortabarría.

Argazkia: Nati Markuleta

ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33), Elgetako kultura etxera edo Oñatiko Laixan elkartera.

FARMAZIENTXANDA

- EGUBAKOITZA, 13**
ZABALA. Barrenkalea 25. . 943 76 16 87
- ZAPATUA, 14**
GUALLAR. San Antonio 5. . 943 76 11 05
- DOMEKA, 15**
GUALLAR. San Antonio 5. . 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 16**
ESTELLA. Matxiategi 5 . . . 943 76 19 63
- MARTITZENA, 17**
MOZOS. Iparragirre 2 . . . 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 18**
CAMACHO. Oxirondo 4. . . 943 76 11 74
- EGUENA, 19**
ZABALA. Barrenkalea 25. . 943 76 16 87

TELEFONOAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) . . . 943 03 54 00
 - Bergarako Udaltzaingoa . . 943 77 91 06
 - Antzuolako Udaltzaingoa. . 943 76 62 46
 - Ertzaintza 943 53 47 20
 - Osasun etxea 943 76 24 40
 - Ásepeyo 943 76 16 43
 - Pakea 943 76 13 49
 - Angiozarko medikua 943 78 90 27
 - Antzuolako medikua 943 76 62 23
 - Odol emaleak 943 76 16 24
 - Alkoholiko Anonimoak . . . 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
 - Antzuolako Udaletxea . . . 943 76 62 46
 - Udal Artxiboa 943 77 91 32
 - Igerilekuak 943 76 20 51
 - Kultura etxea 943 77 91 58
 - Liburutegia 943 77 91 62
 - Kiroldegia 943 76 56 41
 - Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
 - Erregistroa 943 76 13 15
 - Jardun 943 76 36 61
 - Postetxea 943 76 26 85
 - Bedelkar 943 76 04 68
 - Akulu AEK 943 76 05 18
 - Udal Euskaltegia 943 76 44 53
 - Bergarako notariotza 943 76 10 73


MEZAK

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
10:30ean eta 13:00etan.
 - San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean eta 12:30ean.

URBANOAK

- San Lorenzo/San Jandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20
eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegarieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50
(Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00
(Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20,
20:00 eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolgia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Kardel), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.


ATREBENTZIAEZPADA/ Pazkoak iritsi dira. Zer duzu gustukoen jaietan?



GORKA IRIZAR



MAITE ALBERDI



XABIER EGUREN



AMAIA IGARTUA



AITZOL GUTIERREZ



CECILIA DULANTO

Zezenak ditut gustukoen, baina aurten zezen-plazarik ipini ez dutenez, sokamuturrarekin konformatu beharko gara. Gainontzean lagunekin irtetea eta gauez pixka bat beranduagora arte ibiltzea ere gogoko dut.

Barrakak gustatzen zaizkit gehien eta gogokoen dudana *tutti-frutti* barraka da. Hala ere, egubakoitzean bakarrik ibiliko naiz, jaietako gainontzeko egunetan oporrak aprobetxatuz kanpora noa eta.


Barrakak; eta euren artean *Rodeo* eta *Alcatraz* gustatzen zaizkit gehien. Hala ere ez dut diru gutzia barraketan gastatuko. Kaleko postuak ikustea ere gustatzen zait eta baliteke zerbait erostea.

Barrakak eta kalean egoten den giroa gustatzen zaizkit. Gauean irteten ez didate lagatzen baina goiz eta arratsalde jai giroan lagunekin ibiltzea asko gustatzen zait. Nahiko nuke gauez ere kalean ibiltzea.

Petardoak gustatzen zaizkit gehien. Txikiak erosten ditugu eta egun guztietan ibiltzen gara haiekin jolasean. Txosnetan egoten diren kontzertuak ere gustuko ditut eta baten bat entzutera joango naiz.

Lagunekin barraketara joatea gogoko dut, eta jaietako egun guztietan joango naiz. Gehien *La Carcel* gustatzen zait. Baina, oro har, jaietan dena dut gogoko eta buruhandiek ere ongi pasatzen dut.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ZEZEN-PLAZARIK EZ Bi neskatilak euren kexa azaldu digute aurten, jaietan zezen-plazarik ipiniko ez dutelako. "Benetako jai giroa han sortzen zen eta ez gaude ados kentzearekin. Etxeak egin behar badituzte egin ditzatela, baina aurrez zezen-plaza non ipini pentsatuta", esan digute haserre. /I.A.

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Parrape"



Mahastiaren aspikaldea, lehen tabernako terrazetan eta egon ohi zena.
— Gasparrenoko parrapian afaldu giñuan. JON IRAEGI

BESTEKEESANA

“ Jatetxearen bezeria askotarikoa da; hala ere, astean zehar enpresatako langileak eta negozio gizonemakumeak izaten dira nagusiki. Asteburuan, urtebetetzeak, ezkontzak, bataioak eta halakoak ospatzera gerturatzen dira. "Ehizakiak, keztatuak eta etxean egindako ogia izaten dira normalean arrakastatsuenak. Hala ere, etxean bertan turroia ere egiten dugu dagokion denboraldian, eta jende askoren artean oso estimatua izaten da. Jatetxean, izokin koloreko jangela eta jangela urdina, erreserbatu moduan erabiltzen ditugu, intimitate handiagoa eskatzen duten egoeretan. Adibidez, enpresa bazkarietan" **KOLDO LASA / Lasa jatetxeko sukaldaria 'Zabalik' /05-05-05**

BERAIEKDIÑO/ Maite Aristegi



Jaiak!

E pa Joxepa! Mezu hau hartu orduko hor egongo zara dagoeneko, berragarrrez betetako hondartzaren batean, hemengo jaien burrunbatik ihesi. Etxean txikiak ditugunok, berriz, aspalditik dauzkagu gonetatik tiraka barraken usainean. Eta ez dago Port Adventurara joan beharrik ez! Abiatu naiz baserritik kale aldera, umeekin ondo pasatze aldera. Hasteko, betiko bihurtu naiz ia jan gaitu kotxe batek (berehala konpontzekoa, eta hala ibili behar, egunen baten zer edo zer larrira gertatu arte!). Sustoa pasatu orduko, Zaldumendiko aldapako zulo baten gurgila sartu eta ia-ia irten ezinda ez naiz gelditu ba! Jesus! Eskerrak San Martzialak laster datozen eta ordurako zeruak gurdikadaxoren bat brea eskainiko digun. Eta zaharrenak: "Amatxo, Abiadura Handiko Trena balego ez genuke horrela ibili beharko, ezta?". "Tira, tira, hori Bilbokoendako-eta besterik ez da. Dirua alperrik gastatuz gero, ez da

gelditzen behar ditugunak konpontzeko". Aparkatzeko Soledadera igo gara eta epaitegi aurrean atsedentxo hartu eta ia erre gara momentu batean! Non daude baina lehengo arbolatxoak eta enkantua? Gero Artekale aldera ez gara sartu ba, deskuidatuta? Bertan laga ditut ia kotxearen pare bat gurgil! Beste aldera hartu eta zinema ondolik pasatzean: "Amatxo, joango gara zinera? Ez ume, ez dago zinemarik. Orain zinemara eta laster ganaduak hiltzera ere Bilbora joan beharko dugu".

"Etxean txikiak ditugunok aspalditik dauzkagu gonetatik tiraka barraken usainean"

"Orduan, goazen Bilbora bizitzera!". Ekuadortar baten postu aurrean gelditu eta hor hasi zaigu kontatzen, paperak lortzeko izandako arazo piloa (Udala, kontratua... zergatik egiten zait hau hain ezaguna? eta beldurrez dagoela noiz bidaliko ote duten). Barraketan akordatu orduko xahutu ditugu 30 euro (hau lapurreta!) eta etxe aldera. Bueltan ere topatuko ditugu arrazoiak Udalarri eskerrak ematen jarraitzeko.

HAUGIROA!

MINIMOA	5 °C		
Zapatua, 7			
MAXIMOA	23 °C		
Astelehena, 9			
ASTEKO EURIA (l/m ²)	11,9 L		
	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 4	22 °C	9 °C	5,4 l/m ²
Eguena, 5	14 °C	9 °C	0,9 l/m ²
Egubakoitza, 6	20 °C	7 °C	— l/m ²
Zapatua, 7	23 °C	5 °C	0,2 l/m ²
Domeka, 8	20 °C	10 °C	— l/m ²
Astelehena, 9	23 °C	12 °C	3,7 l/m ²
Martitzena, 10	20 °C	12 °C	1,7 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldegi
Oihana Elortza
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
8.680 ale

Goiena
Komunikazio Zehatzak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 13a / 243. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

San Isidro eguna bihar, zapatua, ospatuko dute

AINTZANE IRIZAR

San Isidro eguna, berez, maiatzaren 15ean, domeka, den arren, bihar, zapatua, egingo dituzte ospakizunak. Goiz osoan zehar ekitaldi ugari egongo dira; aurten, Anelkarrek Bidezko Merkataritzako produktuak saltzeko mahaia jarriko du.

Baserritarrendako jai egun garrantzitsua izaten zen garai baten San Isidro eguna. Gaur egun, kaletar zein baserritarrendako jai eguna da. Aspaldi honetan zapatuan ospatzen da egun hori, eta ez garai baten bezala, San Isidro egunean bertan.

Goizean goiz hasiko dituzte ekitaldiak; 09:00etan jarriko dituzte ikusgai gauduak eta 14:00ak arte egongo dira plazan. Bestelako produktuak erosteko aukera ere izango dugu: artisau produktuak eta baserrikoak, besteak beste. Kukumarroen erakusketa ere goizean zehar jarriko dute.

10:30ean salda banatuko dute Trekutz elkarrean; 11:00etan izango da meza. 12:00etan, txistulariek kalejira egingo dute eta 12:30ean, trikitalarien kalejira izango dugu.



Ganaduak eta artisau postu mordoak jarriko dituzte zapatu goizean zehar.

BIDEZKO MERKATARITZA


Anelkar Antzuolako Elkartasun Taldeak Bidezko Merkataritzako produktuak saltzeko

mahaia jarriko du Herriko Plazan; gainera, Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna da maiatzaren 14a.

Irastortza baserria eraisten hasi dira

Martitzen goizean jarri zuten garabia Irastortza baserrian, *Irausta* bezala ezagunagoa herritarren artean. Eraitsi egingo dute baserria, eta borda txiki bat egingo dute hantxe.

Baserria eraistearren arrazoia da, etxe berria eraikitzea eskatu zutenean, baldintza bat jarri ziela Udalak: baserri zaharra eraitea. Orain dela hamar bat urteko kontuak dira horiek. Azkenean, baldintza hori bete beharra izan dute./A.I.



KIROLAK

'Fillu', tunning txapelketetan bikain

AINTZANE IRIZAR

Tunning txapelketetan dabil Antonio Taboada *Fillu*, iaztik; soinuari dagokion tunning modalitatean aritzen da bera.

Apirilaren 30ean eta maiatzaren 1ean Zarautzen jokaturako Espainiako txapelketako finalurrekoan, bigarren geratu zen. Horrela, urrian Madrilen jokatuko duten finalerako sailkatu da. Zarauzko bere lagun Anbu eta Estibalizi eskerrak eman nahi dizkie, eskainitako laguntzagatik.

KASUALITATEZ SORTUTAKOA

Iaz hasi zen *Fillu* mundu honetan murgiltzen. Autoko musika ekipoa hondatu zitzaion eta berria jartzera joan zen Zarauzko dena batera. Ekipo txukuna jarri zuen. Handik hiru egunera Zarautzen txapelketa jokatzen zuten; aurkeztu eta irabazi egin zuen.

"Zaletasun garestia da", esan digu *Filluk*; tunningaren gaineko modalitateak, berriz, are eta garestiagoak dira, eta gustuko dituen arren, soinuaren tunningarekin jarraituko du.



Ordu mordoak pasatzen du *Filluk* autoa egokitzen.

LABUR

Gazte mailako futbol taldeak maiatzaren 22an, domeka, jokatuko du liga txapelketa

Zapatuan 5 eta 0 irabazi zion Antzuolako gazte mailako taldeak Beasaingoari. Garaipen horrekin euren taldeko lehen postuan sailkatu dira. Gainera, finala jokatuko txartela lortu dute. Denboraldia borobiltzeko horixe besterik ez zaie geratzen; liga txapelketa irabaztea, alegia. Maiatzaren 22an jokatuko dute finaleko partidua, Ekintzaren edo Trintxerperen aurka, zelai neutral baten.

Bizi testamenduen udal erregistroa bertan behera lagatzea erabaki du udalbatzarrak

Hilaren 7an egin zuten maiatzeko osoko bilkura; hantxe erabaki zuten bertan behera lagatzea bizi testamenduen udal erregistroa. 2002an sortu zuen Udalak erregistro hori, eta ordutik ez du inork bizi testamendurik egin. 2003an, berriz, Eusko Jaurlaritzak bizi testamenduen gaineko legea onartu zuen eta erregistro orokor bat sortu. Horixe da Udalekoa bertan behera lagatzearen arrazoia. Orain, bizi testamendua egin nahi duten herritarrei laguntasuna eskainiko die Udalak Jaurlaritzaren erregistroan egin dezaten.

ELKARRIZKETA

NEREA SORALUZE/LORE ETA LANDAREETAN ADITUA

“Neguan hobeto zaindu beharko genituzke balkoiak; negurako landareak ere badaude”

A.I.

Datorren martitzenean, hilak 17, berbaldia egingo du Nereak Olanan etxean, 19:00etan. Loreak eta landareak zelan zaindu azalduko digu berak. Egubakoitzero azokako saltzaile bezala ezagutzen dugu gehienok Nerea.

Etxeko landareak ondo zaintzeko ze aholku orokor eman-go zenizkiguke?

Barruko landareei ur gutxi bota behar zaie, askotan, gehiegi botatzen diegu eta ito egiten ditugu. Nik gomendatzen dudana da ura platerera botatzea; landareak berak ura behar duenean handik hartuko du.

Kanpoko landareen gainean gomendioak ematea zailagoa da, landare guztiak ezberdinak direlako; erosterakoan, saltzaileari galdetzea da egokiena.

Kanporako, gure klimarekin, ze landare dira egokienak sasoi honetan?

Azkeneko urteetan mila landare ezberdin probatu ditugu, baina berriro geraniora itzuli gara. Izan ere, arazo gutxien ematen diguna horixe da. Begoniak ere egokiak izan daitezke, baina nire gomendioa da geranioak jartzeta, esperientziak erakutsi digulako egokienak direla.



A.I.

Landareei berba egin behar zaiela diote batzuek. Zuk zer uste duzu?

Nik ez dut uste; gainera, iruditzen zait, askotan, aspertu egiten ditugula landareak, barrukoak, batez ere: beti hostoak gar-

bitzen, hemendik eta handik mozteten... Azkeneko, landarea asperasper egiten da.

Koloreak zela konbinatu behar ditugu?

Ia inork kontuan hartzen ez duen gauza bat da etxearen fatxa-

“Lorearen kolorea aukeratzeko oso kontuan hartu behar dugu etxearen fatxadaren kolorea”

daren kolorea, eta hori oso garrantzitsua da. Adibidez, lore zuria ez ditu ia inork nahi izaten, kolore alaiak ez delako edo. Baina orain asko ikusten ditugun kolore iluneko fatxadetan oso politak gertzen dira lore zuria.

Bestalde, balkoi baten, gustuen arabera betiere, bizpahiru koloretako loreak nahastea polita izan daiteke.

Nahikoa garrantzi ematen diogu balkoiak apaintzeari?

Ba, ez; gainera, udaberrian eta udan bakarrik zaintzen ditugu balkoiak. Negurako ere badaude kanporako landareak.

Loreak norberaren nortasunaren arabera aukeratzeko ditugu?

Hori esaten dute; adibidez, lore bakarra duten landareak gustatzen zaizkiona bakartia dela esaten dute; lore bikoizduna aukeratzeko duena, berriz, inguruan jendea behar duen pertsona dela.

ONGIZATEA

Etxez etxeko zerbitzua Goiz Argik emango du

A.I.

Maiatzeko osoko bilkuran erabaki zuen udalbatzarrak etxeko zerbitzua emateko lana Goiz Argi enpresa bergararrari ematea. Azkeneko hamar urteetan ere enpresa horrek eman du zerbitzua.

HAMASEI ONURADUN

Momentu honetan, zerbitzu hori erabiltzen duten hamasei onuradun edo erabiltzaile daude herrian.

Ohiko bizitarako zailtasunak dituzten lagunei ematen zaie zerbitzua. Bi eratako laguntza eskaintzen zaie: batetik, laguntza

personala, hau da, ohetik jaiki, ohera sartu, garbitu eta abar; bestetik, etxerako laguntza, hau da, etxeko lanak egitea, bazkaria prestatzea eta abar.

Erabiltzailearen egoera ekonomikoa ez da kontuan hartzen zerbitzua eman edo ez erabakitzerakoan; hori kontuan hartzen

da bakarrik onuradunari zenbat kobratu zehazterakoan.

Zerbitzu honen gastuak hiru bidetatik finantzatzen dira: Diputazioaren eta Udalaren laguntzak ditugu, batetik, eta erabiltzaileak ordaintzen duena, bestetik. 2004an, esaterako, 65.634 euro bideratu zituen Udalak.

LABUR

Odola emateko aukera egongo da, eguen arratsaldean

Urtean bizpahiru aldiz egoten da odola emateko aukera Antzuolan. Datorren aste-ko eguenean, maiatzak 19, izango da horretarako hurrengo aukera. Olanan etxean jarri dute hitzordua, 17:30ean hasita. Lehen aldiz odola eman nahi dutenek ere izango dute aukera; eguen arratsaldean Olanan etxera joan besterik ez dute.

Bake epaile berria eta ordezkoa behar ditu Udalak

Bake epaile kargua eta haren ordezkorena hutsik geratu-ko dira laster; Udalak kargu horietara aurkezteko deialdia egin du. Bete beharreko baldintzak dira Antzuolan bizi izatea eta adin nagusikoa izatea. Datorren astean argitaratuko dute Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta eskaerak aurkezteko 15 eguneko epea egongo da, udaletxean.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Maiatzak 14
12:00: Antzuola-Beti Ona (Kadeteak)

EMAITZAK

FUTBOLA

Amaroz 3 Antzuola 0 (Erregionalak)
Antzuola 5 Beasain 0 (Gazteak)
Antzuola 3 Zestoa 1 (Kadeteak)
Antzuola 0 Urola 2 (Neskak)
Antzuola 0 Ordizia 4 (Infantilak)

PILOTA

Deba Arroko txapelketa
Eibar-Olalde (Nagusiak) 17-22
Eibar-Olalde (Kadeteak) 9-22

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

MUEBLES IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak

zabalo
IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89.
Faxa: 943 76 60 14

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**Eta orain....
GREMIOEN
KOORDINAZIOA**

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko maitzaren 13a / 226. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

EAJ-EAko lau zinegotziak izango dira batzorde guztietako buru

IRATI AGIRREAZALDEGI

Udalbatzar berezia izan zen martitzenean, eta bertan erabaki zuten, besteak beste, Udal batzordeak aldatzea. Gainera, EAJ-EA koalizioko zinegotziak izango dira hemendik aurrera batzorde guztietako buru Aralarrek Gobernu batzordea utzi zuelako.

Aralarrek Gobernu batzordea lagata, batzorde informatiboetan aldaketak egiteko proposamena aurkeztu eta onartu zuten martitzeneko udalbatzar berezian.

Orain arte zazpi batzorde bazeuden ere, hemendik aurrera sei izango dira. Kultura, Euskara eta Gaztedia batzordeak bat egin du Hezkuntza eta Turismo batzordearekin. Izaskun Larrea izango da batzordeburua eta Osasun eta Gizarte-Ongizate batzordea ere bere esku egongo da.

Patxi Basaurik izango du Baserritarren batzordearen ardurua eta baita Hazienda, Pertsonal eta Zerbitzuen batzordearena ere. Joseba Muxika Hirigintza, Obra eta Ingurumen batzordeko buru izango da eta Iñaki Ugarteburu Kirol batzordekoa.



EAJ/EA koalizioko eta Aralarreko zinegotziek osatu dute orain dela gutxira arte Gobernu batzordea.

ARALAR EZ DAGO ADOS

Patxi Basauri alkatearen esanetan, batzordeen aldaketak ez du eragin nabarmenik izango Udalaren funtzionamenduan. "Lehen zazpi zinegotziren artean banatzen ziren batzordeen ardurak

eta orain lauk hartuko ditugu batzordeburu lanak. Hori izango da aldaketa bakarra".

Aralarrek ere eman du iritzia batzorde banaketa berriaren gainean, "batzorde banaketa berria EAJ-EAko zinegotzien erosota-

sunerako da. Ez gaude ados Hezkuntza eta Kultura batzordeak batzearekin. Batzorde honetan gai larregi pilatuko direla uste dugu". Batzordean landuko diren gaiei merezi duten denbora ematea eskatu du Aralarrek.

LABUR

Izenematea zabalik Ozkarbiren egunerako

Ozkarbik urtero bezala elkar-tearen eguna ospatuko du datorren maiatzaren 22an. Eguerdian txikiteoa egingo dute trikitilarien laguntzaz, gero bazkaria izango da eta bazkal ostean dantzaldia. Bazkaritan zenbat izango diren aurrez jakitea komeni denez, maiatzaren 15a baino lehen eman beharko da izena elkar-tean bertan. Bazkariak zazpi euro balio du.

Maiatzaren 28an izango da 80 urtetik gorako bazkaria

Erretiratuen elkarteak, orain dela bost urte egin zuen bezala, bazkaria antolatu du 80 urtetik gorako herriko erretiratuendako. Elgetan 80 urtetik gorako 66 lagun badaude ere, 45ek eman dute izena bazkaritarako. Izan ere, batzuk ez dira Erretiratuen elkarteko bazkide eta besteak ezin dute joan. Bazkaria maiatzaren 28an izango da 14:00etan Iñaki jatetxean. Aurrez, 13:00etan meza izango dute erretiratuek.

KIROLA

Pilotalekua eta kirol instalazioak berritzeko proiektua onartuta

I.A.

Udalak onartu du pilotalekua eta kirol instalazioak berritzeko proiektua. Proiektu hori egiteko gertu dauden enpresek euren eskaria aurkezteko epea zabalduko dute aurki eta euren asmoa da uztailean lanak hastea. Ondoren, bederatziz hilabeteko epea izango dute obrak amaitzeko. Beraz, espero da datorren udaberrirako frontoia berrituta egotea.

Berrikuntza lan hauek egiteko onartutako aurrekontua 693.530 eurokoa da. Pilotalekuan egingo dituzte berrikuntza nabarmenak, baina beste kirol instalazioak hobetzea ere nahi dute.


Lanik handiena teiltua konpontzea izango da. Egurrezko habeak ipiniko dituzte eta orain teiltuan dagoen uralita kenduta teiltak jarri. Hemendik aurrera frontoiko argitasuna askoz handiagoa izango dela uste dute. Lurra ere erabat berrituko dute.

URA ETA ARGIA

Argiztapen instalazioa ere erabat berrituko dute eta baita kiroldegiko ur-bero instalazioa ere; honela, eraikina arau berrietara egokitzea da asmoa.

Behin berrikuntzak egiten hasita, aldagela berriak ipiniko dituzte pilotalekurako.

Bestalde, frontoian ate berri bat irekiko dute Elorriorako bidera ematen duen horman. Ate hau, ordea, noizean behin baino ez da erabiliko.



Berrikuntzen artean handiena teiltua konpontzea izango da.

HIRIGINTZA

Hil amaieran hasiko dira Uruburuko obrak


I.A.

Udalak onartu du Irualde bat enpresak Uruburun etxebizitzak egiteko aurkeztutako proiektua. Guztira 48 etxe izango dira: adosatua, bi bizitzakoak eta bizitza bakarrekoak. Lanak maiatzaren amaieran hasiko dituzte.

Hirigintza, Obra eta Ingurumen batzordeak martitzeneko bileran adostu zuten Irualde bat eraikuntza enpresak aurkeztutako hirigintza proiektua onartzea. Proiektuaren arabera 48 etxebizitza eraikiko dituzte Uruburun. Etxebizitza horietatik 18 etxe adosatua izango dira; 20 etxe bi

bizitzakoak eta gainontzeko hamarrak bizitza bakarrekoak. Etxebizitzak eraikitzeaz gain, urbanizazio lanak ere egingo dituzte, eta hauek 2.265.220 euroko kostua izango dute. Proiektua onartzeko hainbat baldintza ipini ditu Udalak. Besteak beste, aurreikusi dute etxe guztiendako antena bakarra ipintzea, eta ez etxe bakoitzak berea.

TASATUAK
Maiatzaren amaieran hasiko dira urbanizazio eta eraikuntza lanekin. Libreak izango dira orain egingo dituzten 48 etxebizitzak; baina aurrerago, tasatutako 18 etxebizitza eraikiko dituzte inguru horretan.



GOIBEKOKALE

Orain 48 etxebizitza libre egingo dituzte Uruburun; aurrerago tasatutako 18.

AUTOBUSAK

Kanpanzarrera joateko autobus zerbitzua ipini dute

I.A.

Bergara eta Elgeta bitarteko bidea itxita dago 3,50 tonatik gorako ibilgailuendako. Hori dela eta, autobusek Kanpanzar mendatetik barrena egin behar dute ibilbidea. Beraz, autobus zerbitzu berezia ipini dute Elgetatik Kanpanzarrera joan eta han autobusa hartzeko.

Astelehenean itxi zuten Bergararik Elgetarako bidea 3,50 tonatik gorako ibilgailuendako, eta uztailearen 15era bitartean egongo da itxita. Ixtearen arrazoia da Izarreko eta Uberako bihurtu-egitean egiten ari diren lanak. Bide horren ordez beste errepide hauek erabiltzea gomendatu dute: Bergararik GI-632 eta GI-2639 (Kanpazartik) eta Elorriotik GI-632, BI-632 eta BI-2632.

Autobusak ere ezingo dira ibili orain artean bezala, baina PESAKo autobus zerbitzuak jarraituko du, 15 pertsonarendako autobus txikiekin ohiko ordu-tegian. Eskolako umeak Bergarara eramaten dituen Araba autobus konpainiak, berriz, Angiozartik barrena egingo du ibilbidea. Bestalde, Bergara-Bilbo lineako autobusekin bat egiteko autobus zerbitzua ipiniko dute Elgeta Kanpanzarrekin lotuz. Elgetatik Kanpanzarrera honako orduetan irtengo da autobusa: astegunetan 08:40; 14:00; 17:10 eta 18:10. Zapatuetan, 08:40 eta 17:10. Domeka eta jaiegunetan, 09:40; 17:40 eta 20:40. Kanpazartik Elgetara, berriz, 09:15, 13:25, 17:30 eta 18:30 astegunetan. Zapatuetan, 09:30 eta 18:30; eta domeka eta jaiegunetan, 10:30; 18:30 eta 21:15.

POLITIKA

Rebeka Ubera Batzar Nagusietara

I.A.

Rebeka Uberak hartuko du Aintzane Ezenaroren tokiak Gipuzkoako Batzar Nagusietan Aralarreko ordezkari modura. Izan ere, Ezenarro hemendik aurrera Eusko Legebiltzarrean arituko da. Rebeka Uberak balorazio positiboa egin du orain arte Aintzane Ezenarrok egindako oposizio lanaren gainean. "2004ko eta 2005eko aurrekontuei begira gure abstentzioen truke gastu sozialean sektorerik ahulenetan eragin positiboa izan zuten".



BIDE BERETIK
Euren asmoa da bide beretik jarraitzea, Aralarren ildo politikoak berretsiz: berdintasun ekonomikoa bultzatzea, zerbitzu sozialetako ereduaren inguruko eztabaida piztea, babes ofizialeko eta alokairu sozialeko etxeak bultzatzen jarraitzea, garraio

publikoaren alde egitea, nekazaritza ekologikoa babestea, euskara sustatzea, zaborren kudeaketan erretzea ez den beste alternatiba bat bilatzea... Gehitu du, "Aralarrentzat funtsezkoa da Batzar Nagusietatik hasita bakegintza eta normalizazioa prozesuan laguntzea, denon artean ilegalizaziorik zein mehatxurik gabeko Gipuzkoa lor dezagun."

KIROLA

PARTIDUAK

ARETO FUTBOL TXAPELKETA
Maiatzak 14
15:00: Vicios-Maccabi Fuxion
16:00: Txapela-Fuxion Isspro
17:00: La Kokotxa-Isspro Txapela
18:00: Aniketan-Makanaki La Kokotxa

ETB KANTXA (PILOTA)
Maiatzak 13
21:00: Berasaluze-Gonzalez (23 urtez azpikoak)
Gero: Errozenea-Azagirre (23 urtez azpikoak)
Gero: Apraiz-Renobales (23 urtez azpikoak)
Gero: Beloso-Olazabal (23 urtez azpikoak)

Maiatzak 14
16:15: Mitxelena-Rico (Kadeteak)
Gero: Garralda-Narbarte (Kadeteak)
Gero: Beroiz-Epelde (Kadeteak)
Gero: Aurtenetxe-Tellaetxea (Kadeteak)
Gero: Merino-Juanena (Kadeteak)
Gero: Gorka-Badillo (Kadeteak)

Maiatzak 15
10:45: Grajal-Agiriano (Kadeteak)
Gero: Diaz de Ulzurrun-Lezaun (Kadeteak)
Gero: Mendizabal-Landaburu (Kadeteak)
Gero: Aranburu-Elurbe (23 urtez azpikoak)

LABUR

Jaunartzeak izango dira maiatzeko azken domekan

Lehen Jaunartzea egingo dute Elgetako lau umek hileko azken domekan, maiatzaren 29an. Meza Elgetako parrokiari izango da 12:00etan eta ohiko otoitzez gain, jaunartzeako otoitz eta kantu bereziak ere egingo dituzte. Meza ostean familia artean egingo dute ospakizuna.

Guraso eta umeendako jolasak gaur kiroldegian

Gaur, barikua, 19:00etan hasita, jolasak izango dira kiroldegiko kantuan. Gurasoek seme-alabekin jolastea izango da baldintza, jaiaren helburua delako gurasoak konturatzea umeekin euskaraz jolasteak duen garrantziaz. Jolasen ostean, afari-merienda egongo da gurasoek eramandako jatekoekin.

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

TEL.: 943 76 92 71

Goibekokale

Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 13a / 6. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 71 29 77 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS482/05

Larraña Institutuak ekitaldia egingo du 25. urteak ospatzeko

OIHANA ELORTZA

Maiatzaren 21ean egingo dute ospakizuna Larraña Institutuko egoitzan. 25 urtetan izan dituen zortzi zuzendariak, eta batez ere, ehunka ikasleak gonbidatu nahi ditu Zuazola-Larraña Institutuak urteurrenko festara. Tailer mekaniko berria ere inauguratuko dute.

Duela 25 urte hasi zen Larraña Institutua Lanbide Heziketako ikasketak eskaintzen eta urteurrena ospatu nahi du orain. Horretarako, jaialdi txiki bat antolatu dute maiatzaren 21erako, zapatua, Larraña Institutuan bertan. Hantxe izango dira 25 urte hauetan Zuazola-Larraña Institutuak izan dituen zortzi zuzendariak, enpresa munduko, hezkuntza saileko eta udaleko ordezkariak, eta oraingo eta lehenengo ikasleak.

25. URTEURRENEKO EKITALDIA

Urteurrena ospatzeko ekitaldia 11:00etan hasiko dute. Bideo emanaldi batek ikastetxearen 25 urteak laburbilduko ditu. Besteak beste, Agustin Lakak eta Kepa Altubek hitz egingo dute, lehen-



LARRAÑA INSTITUTUA

Mantenuko bigarren mailako ikasle talde bat; ikasleak gonbidatu nahi dituzte, batez ere, ospakizun ekitaldira.

dabiziko eta gaur eguneko zuzendariak. Gainera, oroigarriak banatuko dituzte ikasle, irakasle zein gurasoen artean.

TAILER MEKANIKO BERRIA

Ospakizun ekitaldien barruan, tailer mekaniko berriaren inaugurazioa egingo dute. Ikastetxe-

ko eta enpresa zein instituzioetako ordezkariak zinta moztuko dute eta tailerra ikusiko. Gero, luntxa izango da guztiendako.

LABUR

78 umek egingo dute lehenengo jaunartzea aurten

Guztira 78 umek egingo dute jaunartzea Mikel Deunaren parrokan. Bi domekatan izango dira jaunartzeak: batzuek joan den domekan egin zuten eta beste umek etzi, maiatzak 14, egingo dute, 13:00etan.

Bestalde, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Elkarteak jaunartzeetako gastuen gaineko ikerketa bat egin du eta emandako datuen arabera, 3.000 euro inguru gastatzen dira gaur egun jaunartzeetan.

Elorregitik Oñatira doan errepidea konponduko dute

Diputatuen Kontseiluak onartu du zaharberritzea GI-2630 errepideko, Elorregitik Oñatirako bidea, zati batzuek. Zehatz esateko, errepide horretako bi kilometro eta Zubillaga auzoko errepide zaharreko zatiko zorua zaharberrituko dute. Proiektu honen aurrekontua 743.000 eurokoa da eta bost hilabeteko epea dute lanak egiteko.

SAN ISIDRO FERIA

San Isidro eguneko feria egingo dute zapatuan Larrain Gainen

O.E.

Larrain Gain elkarteak 25 urte beteko ditu aurten eta dagoneko hasi dira ospakizunekin. Bihar, zapatua, San Isidro feria egingo dute elkartearen bertan eta gaur, jakiei, zuhaitzei eta okelari buruzko hitzaldia.

Larrain Gain elkarte gastronomikoak 25 urte beteko ditu aurten eta urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatuta ditu. Asteburu honetan, adibidez, hitzaldia eta feria egingo dituzte.

HITZALDIA ETA SAN ISIDRO FERIA

Gaur, bertan, adibidez, hiru gai landuko dituzten hitzaldia egingo dute 19:00etan. Batetik jakiei buruz hitz egingo dute eta horretarako, Jakion kontserba enpresako Susana Aiastui etorriko da. Okelari buruz hitz egiteko, berriz, harakin bat egingo da eta Natur Eskolako kide batek zuhaitzei eta landareei buruz hitz egingo du.

Bihar, berriz, zapatua, San Isidro eguneko feria egingo dute, hau ere elkartearen bertan goizetik eguerdira arte. Animaliak ez ezik, nekazaritzan eta abeltzain-

tzan erabiltzen dituzten tresnen erakusketa egingo da. Adibidez, azeriak harrapatzeko zepoak, lurra lantzeko makinak edo orturako lanabesak egingo dira. Tresna guztiak Oñatiko baserrietan batutakoak izango dira. Gainera, sagardoa, trikiti musika eta luntxa ere izango dira.

25 URTE ETA 140 BAZKIDE

80 bazkide zituela zabaldu zuten Larrain Gain elkartearen 1980ko abenduan. Hasierako bazkideak auzotarrak ziren baina zabaldu egin da. Egun 140 inguru ditu.



Larrain Gain elkarteak 25 urte beteko ditu aurten.

www.jardun.net • www.jardun.net • www.jardun.net • www.jardun.net • www.jardun.net • www.jardun.net

JARDUNEN 15. URTEURRENA

EGITARAUA

MAIATZAK 25, eguaztena:

- Mahaingurua, "Zeintzuk izango dira euskara elkarte baten erronkak hurrengo 15 urteotan?" Julen Arexolaleiba eta Iñaki Arruti, 19:00etan, Kultura Etxean.

MAIATZAK 26, eguena:

- Jolasleku ibiltaria: 17:00etatik -19:00etara, Munibe plazan.
- "Gizon ustelgaitza" bakarrizketa, Joxe Mari Carrere, 19:30ean, Zabalotegi aretoan.

MAIATZAK 27, egubakoitza:

- Urte amaierako jaialdia: 19:00etan, Zabalotegin.

MAIATZAK 28, zapatua:

- Mintegia: "Gaur egungo egoeraren diagnostikoa eta hurrengo urteetarako helburuak eta erronkak" 10:00etan, Kultura etxean.
- Bazkaria: 14:30ean
- Kontzertua: Azkaiter Pelos, Matxura eta Kerobia, 23:00etan, Gaztetxean.

- Mintegian parte hartzea nahi duenak Jardunera dei dezake, Tel.: 943 76 36 61
- Bazkarirako txartelak Jardunen salgai egongo dira, (azken eguna maiatzaren 20an).



Animatu zaitetz ekintzetan parte hartzera!



www.jardun.net • www.jardun.net • www.jardun.net • www.jardun.net • www.jardun.net • www.jardun.net

Bizitza poltsikoan daukazu. Poltsikoan Vodafone daukazu.

Arretarik onena merezi duzu.

Guretako garrantzitsuena bezeroari zerbitzu onena ematea da; horregatik, maiatzetik aurrera Ibargarai kalean egongo gara.

Zatoz maiatzean ditugun eskaintzak aprobetxatzera.



DETEL

Ibargarai 12 BERGARA
943 03 47 67/ 647 77 11 10

Banatzailerik ofiziala

